

**LORTEK ZENTRU TEKNOLOGIKORA BISITA
VISITA AL CENTRO TECNOLÓGICO LORTEK**

2024-02-07 Ordizia 07-02-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburu, Alkate, Foru diputatu, sailburuorde, herri agintari eta herri ordezkariok, LORTEK kooperatibako arduradun eta kideok, Mondragon kongresuko presidente buru eta baita Mondragon Unibertsitateko errektore, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko egiten duzuen lana lehen eskutik ezagutzeko aukera emateagatik. Benetan, plazerra da hemen egotea.

Askotan entzuten ditugu 'ekonomia berria', 'industria berria' edo 'lan berriak' bezalako terminoak. Ordea, zaila egiten zaigu horiei aurpegia jartzea. Horiei izen-abizenak jartzea.

Bada, horiek guztiak ikusi ahal izan ditugu gaurkoan LORTEK-en. Eta aitortzen dizuet, harrotasunez bete gaitu gaurko bisitak.

Mundua ziztu bizian aldatzen ari zaigu. Gaur berria dena bihar zaharra izan daiteke. Horrek nolabaiteko segurtasun eza sortzen du.

Noski, bizitzen ari garen etengabeko krisi eta nazioarteko gatazkek ziurgabetasun hori are gehiago handitzen dute eta ez dirudi etorkizun hurbilean egun lasaiak biziko ditugunik. Ez da horrela izango, tamalez.

Prest egon behar dugu. Herri bezala segurtasuna eskaintzen asmatu behar dugu. Askok dugu jokoan.

Hala ere, baditugu lasai egoteko arrazoiak ere. Euskadi eta bere industria aldaketa horietara egokitzen ari da pixkanaka.

Aspaldi egin genuen industria dibertsifikatu baten aldeko apustua. Esparru bakoitzean lidergoa eta lehiakortasuna bilatzen duten enpresen aldeko pausu irmoa. Orain, emaitzak ikusten ditugu.

Hala ere, mundu lehiakor honek ez digu atsedenerako aukerarik ematen. Etengabe egon behar dugu eta egon beharko dugu bikaintasunaren bila.

Ez dezagun ahaztu: kooperatiben edo ekimen pribatuaren arrakasta gizarte osoaren arrakasta ere izango da. Geroz eta lehen mailako enpresa gehiago izan, orduan eta errazagoa izango zaigu gure bizi kalitatea bermatzen jarraitzea. Ikuspegi horretatik ere, gure babes osoa duzue.

LORTEK genera conocimiento para transferirlo al tejido industrial. La meta es clara: mejorar su competitividad y sostenibilidad. Reconocemos vuestra iniciativa.

Aspiráis a ser un Centro tecnológico líder en el desarrollo de soluciones innovadoras, que den respuesta a retos tecnológicos como la transición digital o energético-climática. Reconocemos también vuestro objetivo.

La fórmula elegida la conocemos bien en Euskadi: cooperar, colaborar.

Ante el auge del individualismo, del egocentrismo, ante la primacía del 'yo' frente al nosotros y nosotros, reconocemos la apuesta por la cooperación, por la colaboración, la corresponsabilidad en el esfuerzo por el objetivo compartido.

Euskadi no tendrá su futuro asegurado si se basa en individualismos. Debemos SER todas y todos, o, sencillamente, no seremos.

Así, trabajando juntas y juntos, cooperando, colaborando, hemos logrado tener hoy la tasa de desempleo más baja de los últimos 15 años. Tenemos que seguir generando más oportunidades de empleo y de mayor calidad.

Gazteria daukat oso presente. Gure eguneroko erronka da guztion lan baldintzak hobetzen jarraitzea. Soldatak onak izatea, kontziliaziorako aukerak erraztea eta lanpostuetan etengabeko formakuntza sustatzea. Lortuko dugu.

Argi dugu lorpen hori talde lanaren, AUZOLANAREN, bitartez etorriko dela.

Gaur LORTEK kooperatibak mezu ezin hobea eskaintzen dio gure gizarteari. Zuen eredia, jarrera eta emaitzak aitortzen ditugu.

Zorionak eta eskerrik asko!